

Masustegiko auzoa, autoeraikuntza eta elkarlana. Urteetan eraispenaren mehatxupean bizi izan den autoeraikitako komunitatea

Laburpena: Masustegi auzoa, auzokoen artean eraikitako auzoa da, autoeraikitakoa. Lurzoru pribatua autoeraikia, auzokoei beren gain hartu zuten betebeharrak publikoak, autogobernuak, auzolanean eta elkarlanaren bitartez. Nork bere etxea ez ezik, ekipamenduak, errepideak, hiri-atondurak... guztia autoeraiki zuten guztien artean. Auzoa materialki autoeraikitzeaz gain, identitate kolektibo kohesionatu bat autoeraiki zuten.

Gako-hitzak: Masustegi, Autoeraikuntza, Auzoa, Identitatea, Komunitatea, Ahalduntzea

Abstract: Masustegi is a neighbourhood built by its own neighbours, a self-built neighbourhood. Self-built on private land, the neighbours took responsibility for this public duty by means of self-government, community work and teamwork. Apart from building their own houses, they also self-built together all the equipment, roads and every urban services and supplies needed. The neighbourhood was materially self-built and during the process a united collective identity was self-built too.

Key-words: Masustegi, Self-construction, Neighbourhood, Identity, Community, Empowering

Anartz Ormaza
Arkitektoa eta
UEUko Arkitektura
Sailburu



Jasotze-data: 2014-12-09/Onarpen-data: 2014-05-17

Masustegi auzoan barrena zoazela, etxe artean, hango kale estuetatik gora eta behera, ez du inondik inora Bilbon zaudela ematen. Sentsazioa, herri txiki batean murgilduta egotearena da, "hau Bilbo da, gero...", zure baitan pentsatzen duzun bitartean, harriduraz. Eta bat-batean, auzoko adineko andre birekin kalean parez pare egiten duzu topo, eta ez gaztelania ez euskara ez den beste hizkuntza batean ari direla sumatzen duzu. Galegoz ari dira. "Hau bitxia, orain bai ez duela honek Bilbo ematen..." diotsozu zeure buruari.

Beste urte batez Bilbon egin den BATen (Bizikidetzarako Arkitektura Topaketak) aurtengo edizioak IKUSEZINAK izan du izenburu. Bertan proposatutako hitzaldi, tailer eta abarren artean, bazegoen Bilboko Masustegi auzora bisita bat, larunbat pasa, auzoko elkarteko kideek prestatutako bazkaria barne, euren auzo-elkarteko lokalean bertan gainera. Auzoa barrutik eta barruko eskutik ezagutzeko aukera paregabea. Baina zer du Masustegik modu horretan (eta orain) interesa pizteko, bada?

Masustegi hankaz gora dago oraintxe bertan. Auzoaren zati handi bat bai behintzat. Goiko aldea obretan dago. Kaleak altxatuta. Urbanizazio-lanetako hesiak edonon. Hormigoizko lur berria, kolore fosforitox margotutako marka, zenbaki eta geziz beteta. Lanerako makineria txikia, eskorgak... edozein izkintan. Harea- eta zementu-zakuak han-hemenka. Pentsa genezake urteetan egin ez diren hiri-lanak, orain dabilzala egiten, guztiak batera! Bada ez ginatke oso oker ibiliko...

Auzoaren sorrera. Lehenengo urteak.

Masustegi auzoa 50eko hamarkadan sortutako auzoa da, Galiziako gune bateko zenbait herritatik etorritako langileek

eta haien familiek sortutakoa. Auzoa, Kobeta eta Caramelo (Mintegitxueta) mendiak batzen diren mendi-magalean sortu zen, jabetza pribatua zuen lur-eremu batean. Lurrak Miguel de la Viarenak ziren, gertu eta gorago dagoen harrobiaren jabearenak hain zuzen ere. Izan ere, Masustegin finkatu ziren jatorri galiziarreko langile haietako asko, harrobira zetozen lanera. Lur pribatua izanik, Miguel de la Viak ba omen zuen Intxausti abizeneko izen-mailegatzaile bat, zeinek bitartekaritza-lanak egiten zituen jabearen eta langileen artean. Langileek diru kopuru bat ordaintzen zioten izen-mailegatzaileari, eta horrek orube zati bat, alde zurratik markatzen zuena, ematen zien. Baina hori baino ez, lur zati txiki bat. Horrek ez zekarren, berez, etxea eraikitze baimenik.

Masustegira langileak beren familiekin etortzen hasi zirenean, hamar bat etxe edo baserri baino ez zeuden mendi-magalean sakabanatuta. Gutxika-gutxika, lehenengo txabola moduan, eta geroago horma sendoz eratutako eraikin txiki moduan, beren etxeak egiten hasi ziren. Eskuz. Beren eskuekin. Zituzten baliabide urriekin. Eta elkarlanean. Baimenik gabe eraikitzen zituzten etxeak, baina etxearen premia zeukaten langileek, eta langileen beharra lantegiek. Modu batean edo bestean, momentu hartan, egoerak zilegi egiten zuen etxe haien eraikuntza. Legearen babesik ez bazuten ere.

Langile gehiago iritsi ahala, auzoa hazten joan zen. Langileak harrobira lanera etortzen ziren, edo Bilbo inguruko beste enpresa edo lantegi handietara. Lantegietan, bertako langileei, beraien jatorrizko herrietatik senitartekoak, lagunak edo ezagunak ekartzea eskatzen zitzaizkien, zegoen lan-eskaera



Hurrengo orrialdetako irudia ~ Masustegi auzoko ikuspegi orokorra
Goiko irudia ~ Masustegi auzoko argazkia, atzean Bilboko zentroa duela. ~
Argazkien egilea: Anartz Ormaza

asetzeko. Baten bat Galiziako jaioterrira bisitan joaten zenean, berarekin ekartzen zuen lagun edo senitartekoren bat, lanera. Eta Masustegira, jakina. Horregatik dute Galiziako gunere berean jatorria Masustegiko biztanle gehienek.

Hasierako urteetan auzoak ez zeukan ezer. Etxe arteko bidexka estuak egiten joan ziren, maldan gora eta behera, batetik bestera mugitu ahal izateko. Urik ere ez zegoen. Hasieran euri-urak batzen zituzten. Emakumeak Errekalde edo Olabeagako iturri publikoetara jaisten ziren ur bila. Beranduago, udalak auzo ondotik jaisten zen erreka batean presa txiki bat egin zuen, eta auzokoek bertatik egin zuten, euren kabuz, ur-hornidura auzora, auzoko lehenengo iturria sortuz. Gutxika, etxeetara ur-banaketa egiten joan ziren. Betiere, euren kabuz. Eta zeuzkaten baliabide eta ezagutzarekin. Argi dago, auzotarrek beren gain hartu zutela beren eta beren auzoaren etorkizuna, egoeraz ahaldunduz.

Etxeen eraikuntza, autoeraikuntza, legez kanpo.

Batzuen esanetan, etxeak modu klandestinoan eraikitzen ziren. Orduko frankismoko lege baten arabera, antza denez, hiru horma altxatuta zeuzkan etxe bat ezin zen behera bota, nahiz eta baimenik gabe eraikita egon. Eta horregatik esaten da etxeak gauez eraikitzen zirela, inguruan zebilen harrobiko zaindaria ekiditeko. Eguna argitzen zenean hormak altxatuta bazeuden, etxe hura ezin izango zen eraitsi. Beste batzuen esanetan, berriz, gauez eraikitzearen arrazoia denbora kontua baino ez zen. Lanean 12 edo 14 ordu eman ondoren, eguneko argiak ospa egiten zuten lanetik etxeratu orduko, gaua zen zeuzkaten tarte bakarra euren etxea, edo auzoa bera, eraikitzeko. Autoeraikitzeko. Eta jakina, halako egoeran, elkarlana ezinbestekoa zen. Auzo-elkarteko kide baten esanetan, "premia gorriak asko elkartzen du", eta hortik dator auzokoaren arteko harreman estua. Familia berri bat iristen zenean, beste baten etxean hartzen zuten, euren etxe berria eraiki ahal zuten arte. Zenbait kasutan, 20 pertsona ere bizi ahal ziren etxe batean, familia berriak etxe berria egiten zuten arte. Hasieran 10 bat metro koadroko etxea egiten zuten, logela, sukaldea eta komun txikia. Dirua eta baliabideak lortu ahala, joaten ziren etxea handitzen. Eta horrela joan zen auzoa hazten, egun ezagutzen dugun 3.000 biztanletik gorako auzoa izan arte.

Auzoko On Jose abadeari ere, guztiek aitortzen diote emandako babes eta laguntza. Auzoan zeuzkaten "autoritate" bakarra zenez, sarritan egin behar izan zituen bitartekaritzalanak gainontzeko autoritateen aurrean, auzotarren interesen alde egiteko.

Elkarlana, auzolana, aldarrikapenak. Komunitatea, izaera eta identitatea sortzeko tresnak.

Gauak ez ezik, asteburuak ere auzolanean ematen zituzten. Astoak alokatu eta materialak gurdietan garraiatzen zituzten. Auzokoaren arteko harreman estuak, eta zituzten beharrez, komunitate sendo eta kohesionatu bat sortu zuten, zeinek beraien eskubideen alde luze eta tinko borrokatu zuen. Eta oraindik ere, borrokatzen du. Udalaren aurrean auzokoaren eskariak aldarrikatzeko garaian, ezinbestekoa izan da komunitate sendo hori. Udalak, lurra publikoak ez zirenez, eta are gehiago, etxe haiek, auzo osoa bera, ordenazioz kanpo zegoenez, ezin zuten bertan eskurik





hartu. Eta aitzakia horrekin, auzokoen esku egon da, goitik behera eta oraintsu arte, auzoaren eraikuntza zentzu guztietan: etxeak, ekipamendu publikoak (elizatik hasita, lehendabizi), hiri-hornidura eta atondurak, errepideak... Denborarekin eta ekinez, lortu zuten udalarekin akordio moduko bat. Udalak ezin zuen auzoan zuzenean eskurik hartu, bere lurrak ez zirelako. Baina auzokoei hornidura "publikoak" eraikitzeke materialak ematea lortu zuten. Horrela, beharren bat zutenean, udalera jo, eta handik ekartzen zituzten harea, zementu edo harri-koskor zakuak, edo behar zutena, errepidea egiteko mundruna (galipota, brea) bazen ere. Eginez ikasi zuten auzokoek gauzak eraikitzen, aurretik inork gutxik zeukan-eta eraikuntza-ezagutzarik. Beraien beharrak premiazkoak ziren, oinarritzkoak. Eta hortaz euren aldarrikapenak lortzeko eta euren ahotsa entzunarazteko, auzotarrek era guztietako ekintzak egin zituzten, entzutetsuak eta xelebreak batzuk. Auzoa Bilborekin lotuko zuen autobus-zerbitzua lortzeko, Basurtutik hainbat lineako autobus, gaez eta banan-banan bahitu eta auzora igo zituztenekoa, adibidez. Beraien egoera berezia zen heinean, beraien ekiteko moduak ere berezia izan behar zuen. Bestela, jai zuten.

Eraispenaren mehatxua eta udalak auzoko lurrak erosteak.

90eko hamarkadara arte, eta udalarekin zenbait akordiora iritsi ziren arte, Masustegiko auzoa beti egon izan zen eraispenaren itzalpean. "Legez kanpo" zeuden eta, eremu pribatua gainera. Auzoa behera botako zuten beldur izan ziren urteetan. Eta horrek ere, hein batean, komunitatea sendotu egin zuen. Urte asko itxaron behar izan zituzten, beren burua "salbu" eta legearen barruan ikusi zuten arte. Nahiz eta, gaur diotenez, eraispenaren mehatxuari sekula sinesgarritasun handirik eman ez zioten, ezinegona, zalantza, hor zegoen.

Azkenean, eta bide luze baten ostean, 2010. urtean Bilboko Udalak Masustegi auzoko lurrak erosi egin zizkien Miguel de la Viaren oinordekoei, aldameneko Arraiz mendiko lur-eremu batekin batera, 1,75 milioi euroren truke. Horrela, eta behingoz, auzoa udal-planeamenduko ordenazioan sartu zen, eta gutxinaka-gutxinaka, etxe guztien egoera legeztatzen joan da, biztanle bakoitzak udalari 500 €-ko diru kopurua ordaindu eta gero, luraren jabe egitearren. Guztiek kopuru berdina, orube edo etxearen tamaina ezberdina izanda ere, modu sinbolikoan.

Auzokoekin hitz egitea baino ez dago, auzoak duen identitateaz jabetzeko. Joan ziren auzoaren oparotasun-garaiak, 15 taberna eta dendatik gora zeuden garaiko bizitasuna galdu egin da. Auzo zaharkitua da Masustegi. Baina Masustegikoak harro daude beren "errepublikaz", bertako auzokoak izateaz. Auzoa orain dela 50 urte euren eskuekin altxatu eta eraiki zuten askok eta askok oraino bertan dira, eta auzoaren autoeraikuntza hurrengo belaunaldiak gertutik ikusi duen prozesua izanik, ulertzekoa da oraindik ere batzuen eta besteen artean duten harreman estua. Auzoa materialki eraiki ez ezik, Masustegira etorritakoek, auzoa bere osotasunean ere autoeraiki zuten, komunitatea, izaera.

Behoko irudia ~Masustegi auzo planta, 1/2000 eskalan - Iturria: Bilboko Udaletxeko Kartografia Saila





Goiko irudia ~Masustegi auzoko elkarteko kide bat azalpenak ematen ~ Argazkiaren egilea: Anartz Ormaza



Garai berriak, erronka berriak.

Egun eraberritze-prozesuan murgilduta dagoen auzoa dugu Masustegi. Udala zenbait fasetan ari da auzoko urbanizazioa egiten, saneamendu berria sartzen, argindarra lur azpitik antolatzen... Moldaketa-lanak bukatuta dauden auzoko guneeetan, etxeen fatxada zaharrak, etxeen tipologia bera, ez datoz bat urbanizazio berriko altzairu herdoilgaitzezko baranda distiratsu berriekin. Eraikuntzen eta urbanizazioaren arteko denbora-desfasea agerian da. Nola eragingo dute lan hauek auzoko izaeran? Lanak jadanik udalaren esku daude, eta ez zuzenean beraien esku. Eragingo dio horrek auzotarren arteko kohesioari, kolektibotasunari? Bakoitzaren eremuaren eta urbanizazio publikoaren arteko mugak birdefinitzen ari diren garai honetan, individualismoak, hesitik barrurako norberaren jabetza pribatua definitu beharrak, ez ote dio eragingo ordura arteko auzoaren komunitasunari?

Beharbada auzoa ez dute beren eskuekin eraikitzen jarraitu beharko. Baina helburu argi eta amankomunekoak dituzten bitartean, auzo-izaera kolektiboa hein handi batean bermatuta dagoela esango nuke. Behin lehenengo fase horien lanak martxan daudela, argi dute zein den heldu beharreko hurrengo urratsa: irisgarritasuna. Biztanleria nagusia du, adinez, Masustegik. Lehen biztanleek, lanera etorritakoek, edo beraien emazteek, bertan dira. Momentuz badute, hortaz, zer aldarrikatu. Datozen belaunaldiek mantenduko ahal dute bizirik autoeraikitako komunitate-izaera, auzoko identitatea.

"Masustegi, Bilboko azken auzoa" irakurri izan dut, udalak auzoa "erosi" zueneko garaiko prentsan. Azken auzoa izan da Bilboko lurren barruan sartzen, baina gauza askotan, zalantza barik, aitzindaria izan da Masustegi. Aitzindaria eta eredia. Auzokoen esanetan, "hamarkadetan ikusezina izan den auzoak" ez du erronka makala 50 urteetan autoeraikitakoa mantentzen.